



## Testuak lantzen

### 1 Bete itzazu hutsuneak **-t(z)eagatik** forma erabiliz eta kontestua kontutan hartuta:

Ur azpiko bizitza aztertzen dutenen artean, Jacques Cousteau izango da, du-darik gabe, ezagunena. Arrainen bizitza hobeto ... , metalezko kapsula bat egin eta Mediterraneora joan zen behin. Kapsula hartan sartu eta hondoraino jaitsi zuten. Gora eta behera ez ... , sukaldea eta gela bat ipini zituen kapsula barruan. Hiru aste egin zituen ur azpian, mugitu gabe, arrainen mugimenduak aztertzen. Fama handia hartu zuen Cousteau-k hori ... .

### 2 Irakurgaia

#### NIK EZ DUT ZAKURRIK

Hiriko zaratarekin aspertuta, herri txiki batean hartu zuen Alfredok etxea, ero-soago bizitzeagatik eta batez ere gauean lasaiago lo egiteagatik.

Lehenbiziko gauean, ordea, ez zuen bake handirik izan. Gauerdian aldean edo, lo zegoela, telefonoak esnatu zuen bat-batean.

—Bai...

—Zu al zara auzo berria? —emakume baten ahotsa zen.

—Bai, ni nauzu...

—Adizu, gizona —haserre emakumeak—, zure zakur horrek ez al digu lo egiten utzi behar?

—Baina...

—Ez, ez; ez hasi orain *baina* eta *baina*. Ondoko etxeko andrea naiz eta zure zakur horrek ez digu lo egiten uzten. Ez dago eskubiderik! Isilarazi ezazu lehenbailehen, poliziari deituko diot bestela. Jakinaren gainean zaude. Ines Mutuberria naiz ni eta jakin ezazu Ines Mutuberria ez dela txantxetan ibiltzen.

—Eskerrak abisatzeagatik, baina ni...

—Zenbat aldiz esan behar dizut *bainaka* ez hasteko nirekin? Isilarazi zakurra eta kito.

Eta besterik gabe eten egin zuen deia. Urrutian zakur baten zaunkak entzuten ziren...

Biharamunean ez zen ezer gertatu. Gauerdian, ordea, telefonoak jo zuen Ines Mutuberriaren etxean. Haserre jaiki zen hau ohetik, lo hartu berria baitzen.

—Ines Mutuberria?

—Bai, ni naiz...

—Zure auzo berria naiz.

—Zer...? -erdi lo andreak.

—Auzo berria naizela! Eta badakizu zertarako deitu dizudan? Nik zakurrik ez dudala esateko. Agur eta ondo lo egin!

auzo: *vecino* (*otras veces, barrio*)